





Hizkuntza-ohituren aldaketa Osakidetzan

2023an martxan jarritako
dinamiken emaitza

Aurkibidea

1.	<u>Testuingurua</u>	<u>3</u>
2.	<u>Urteko helburua</u>	<u>4</u>
3.	<u>Metodologia</u>	<u>5</u>
4.	<u>Martxan jarritako dinamikak</u>	<u>6</u>
5.	<u>Hizkuntza-ohituren bilakaera</u>	<u>9</u>
6.	<u>Parte-hartzaileen testigantzak</u>	<u>12</u>
7.	<u>Ondorioak</u>	<u>14</u>




1. TESTUINGURUA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko III Plana

4.7. Hizkuntza-ohiturak aldatzeko egitasmoak

Eusle, Biko Eusle, Ulerrizketa eta antzeko metodologietan oinarriturik, zerbitzu-erakundeek egitasmo planifikatuak abiaraziko dituzte, aldaketarako borondatea eta baldintza egokiak dituzten bikote, lankide-talde edo atal profesionaletan hizkuntza-ohiturak gaztelaniatik euskarara aldatzeko.


Euskara Zerbitzu Korporatiboak lagundu egingo die egitasmo hauek gauzatzen eta jarraipena egiten



2. URTEKO HELBURUA


Metodologiak zerbitzu-erakunde guztietan gauzatzea
Gutxienez...

- 3 talde profesionaletan erakunde handietan
- 2 taldetan erakunde ertainetan
- 1 Taldean erakunde txikietan



3. METODOLOGIA

1. Zerbitzu-erakundeetan talde posiblea(k) identifikatu
2. Lokalizazio fitxa bete
3. Aurkezpen-bilera egin
4. Hizkuntzen erabileraren 1. neurketa egin
5. Dinamika martxan jarri
6. Dinamikari jarraipena egin
7. Hizkuntzen erabileraren 2. neurketa egin
8. Esperientziaren balorazioa egin taldearekin
9. Hizkuntzen erabileraren 3. neurketa egin
10. Egitasmoaren amaiera



4. MARTXAN JARRITAKO DINAMIKA

ZERBITZU
ERAKUNDEAK



13

PROFESIONALAK



139

TALDEAK



28

EUSLE



15

BIKO EUSLE



12

EUSLE SAREA*



1

4. MARTXAN JARRITAKO DINAMIKAK

ZERBITZU-ERAKUNDEA	TALDE-KOPURUA	PROFESIONAL KOPURUA
Zuzendaritza Nagusia	4	12
Bilbo-Basurtuko ESla	1	2
Tolosaldeko ESla	2	13
Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa	2	3
Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarea	2	8
Santa Marina Ospitalea	2	6
Goierri-Urola Garaiko ESla	3	9
Barrualde-Galdakaoko ESla	2	7
Debabarreneko ESla	1	20
Arabako ESla	3	17
Bidasoko ESla	2	32
Emergentziak	1	3
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESla	3	7
BOMS	1	4
GUZTIRA	28	139



Bertan behera, Euslearen bajagatik

4. MARTXAN JARRITAKO DINAMIKA

Farmazia

Anatomia patologikoa

Erizaintza / Emagintza

Harrera

Inmunohematologiako medikuak

Medikuntza orokorra

Aurrekontuak

Erizaintza

Harrera

Psikiatria

Liburutegi birtuala

Garapena eta formakuntza

Prestakuntza eta komunikazioa

Errehabilitazioko gimnasioa

Erizaintzako irakaskuntza

Ekonomia


Pazienteen arreta



5. HIZKUNTZA-OHITUREN BILAKAERA

Dinamika guztien emaitza orokorra

Emaitza orokorra: Hizkuntza-ohituren bilakaeraren %




	Dinamika amaituta	Atsedenaldiaren ostean
Euskaraz	↑ % 28,1	↑ % 20,0
Ele bietan	↑ % 19,5	↑ % 3,6
Gaztelaniaz	↓ % 47,6	↓ % 23,6

5. HIZKUNTZA-OHITUREN BILAKAERA

Biko eusle (15 talde)

Hizkuntza-ohituren bilakaeraren %




	Dinamika amaituta	Atsedenaldiaren ostean
Euskaraz	↑ 29,4	↑ 15,5
Ele bietan	↑ 36,7	↑ 29,8
Gaztelaniaz	↓ 66,1	↓ 45,3

4. HIZKUNTZA-OHITUREN BILAKAERA

Eusle (12 talde)

Eusle: Hizkuntza-ohituren bilakaera



	Dinamika amaituta	Atsedenaldiaren ostean
Euskaraz	↑ 26,9	↑ 19,9
Ele bietan	↑ 2,2	↑ 3,6
Gaztelaniaz	↓ 29,1	↓ 23,6


6. PARTE-HARTZAILEEN TESTIGANTZAK

- Polita izan da esperientzia. Orain arte, ez dugu inoiz elkarrekin euskaraz egin eta lortu dugu gure arteko hizkuntza-ohitura aldatzea
- Itxura batean, esperientziak erreza ematen du, baina ohiturak aldatzea uste baino zailagoa da
- Ahalegin txikia, etekin handia
- Dinamikaren planteamendua erraza eta oso egingarria da
- Euskaraz hitz egiten saiatu naizenean, ondo sentitu naiz, eroso
- Erdipurdi aritzea espero genuen, abiapuntua oso baxua zelako, hutsetik abiatzen ginelako. Aldaketa oso handia ez izan arren, emaitza ona da guretzat



6. PARTE-HARTZAILEEN TESTIGANTZAK

- *Hiztegia ikasi dut eta euskararekiko arintasun handiagoa nabaritu dut*
- *Ez gara egunero ordenagailu aurrean egoten eta, horregatik, jarraipeneko galdetegia betetzea kosta egin zaigu*
- *Dibertigarria izan da eta barre egin dugu. Gure arteko konfiantza handitu da euskaraz hitz egiteko*
- *Behintzat, saiatu gara!*
- *Niretzat oso garrantzitsua da euskararen erabilera ospitalean zabaltzea eta ahal dudan guztia egingo dut*
- *Batzuetan ahaztu egin zaigu dinamikan murgilduta geundela, eta gaztelaniaz aritu gara*
- *Orain denok dakigu gure artean euskaraz ere lan egin dezakegula*



7. ONDORIOAK

Ondorioak eta emaitzak osatu ditugu, 2023an dinamika osorik burutu duten taldeetatik jasotako informazioarekin.



- Zerbitzu erakundeen % 62k jarri dituzte martxan hizkuntza-ohiturak aldatzeko dinamikak
- Dinamika aurkeztu zaien talde guztiek parte hartzeko erabakia hartu dute (talde batek izan ezik: ez zen momentu egokia)
- Dinamika osorik garatu da talde guztietan (batean izan ezik: Euslearen bajaren ondorioz, eten egin da)
- Erabilitako metodologia (aurkezpenak, mintzagramak, balorazio-bilera) sinplea eta egokia izan dela aipatu dute parte-hartzaileek

7. ONDORIOAK



- Profesionalen mugikortasunaren ondorioz, taldeetan aldaketa egon dira eta, beraz egindako neurketak ez dira nahi bezain zehatzak.
Joerari erreparatu behar diogu eta ez hainbeste zenbakiei.
- Orokorrean, dinamikak iraun bitartean, % 28,1ko igoera eman da euskarazko elkarrizketetan. Azken neurketan, igoera hori 8 puntu jaitsi da (% 20,0).
- Dinamikak iraun bitartean, % 47,6ko jaitsiera eman da gaztelaniazko elkarrizketetan. Azken neurketan, jaitsiera hori leundu da, 24 puntutan (% 23,6).
- Gaztelania hutsezko elkarrizketak gehiago murriztu dira Biko Eusle dinamikarekin, Eusle dinamikarekin baino.

7. ONDORIOAK

- Profesional gehienek dinamikan parte hartzea erraza eta atsegina izan dela aipatu dute.
- Oso positiboki baloratu dute dinamikan parte hartzea borondatezkoa izatea.
- Parte-hartzaile gehien-gehienek aipatu dute Eusle / Biko Eusle dinamikak baliagarriak izan zaizkiela lankideekin hizkuntza-harremanak aldatzeko.
- Hizkuntza-ohituren aldaketak finkatzeko komenigarria ikusten da dinamikak behin baino gehiagotan errepikatzea talde profesional berberekin
- Talde profesional guztiak etorkizunean berriz ere parte hartzeko prest agertu dira

